

TTAKUN (H)ERRENKA

Boligrafo bat adibide

N

ik Fragaren gaiari helduko diot ba, Jose Luis, Beñat, hil eta tertuliatan hainbeste demokrata sortu

dituen gizona; “ez da ahaztu behar Fraga frankismoko ministro izan zela!”, ere entzun baita dezente, esperotako omenaldiez gain, eta, tira, beranduegi da beharbada esaldia ere hilik ez jaiotzeko, hiltzeko geratzen diren “ez da ahaztu behar...”-ak hemendik aurrera ederto biziko badira batez ere; baina ez da hori esan nahi nuena, niri Fragak balio dit gure jaurlaritzatik boligrafo bat, bai, boligrafo bat, nola falta den seinatzera eramango nauen bidea irekitzen didalako, dagoeneko demokratizaziorako metamorfosi betean zela esan zuen esaldi bati esker: “*La calle es mía*”. Autoritarismoaren perletako bat dudarik gabe, eta ez da kalea jabetzan berea zela esan nahi izateagatik; baina balitz? Alegia, kalea jabetzan berea dela pentsatzea ez litzateke autoritarismo era bat? Adibidez, lorategirako banku bat behar balu kalera jaitsi eta hartzea?

Ustelkeria kasuetako errudunak legez kanpo dabiltzala badakitela adierazten duten eszenografiak ematen dituzte, hain inozoak ez garela pentsatuta agian, ezkutatu behar bat, horregatik harritzen gara zenbaiten zabarkerien aurrean, Urdangarin kasu; ez lapurtu duelako, hain gaizki antolatu delako baizik. Mariano Rajoyk Bruselan Espainia bere lorategia, kalea, balitz bezala hitz egin zuenean ere, “lan erreforma greba orokor bat kostatuko zait”, mikrofono atzean izan nahi zuen, beraz, pentsa daiteke handiustea dela, baina badaki zenbait ez dela ados egongo lan erreformaren kostu zehazki hori izango denean.

Ari gara boligrafoa hurbiltzen. Aste honetan Esteban Gonzalez Ponsi eginiko elkarrizketa entzun nuen, eta ez, ez zuen ezer arrarorik egin, nik ere hasieratik ulertu nuen zerabilten tonu tristea; ministerio gabe geratu da, Federi-

DANI BLANCO



Ixene Apaolaza



Padrón



Sarasola

co Trillo bezala. Eman dituen prentsaurrekoen ondoren! Txandalaz, edozein ordutan, egunetan, zerbait gertatzen bazen Espainiako edozein puntutan bere partiduaren erantzunaren beharra zuena, edo izan gabe, agertzen zen Gonzalez Pons, burutapenen bat beti prest. Izan zuen apalta-

sun gaitasun guztia, politikak gauzak ez dizkizula espero duzunean ematen esatea izan zen. Tira, ez dago disimulu beharrik, hitz egin daiteke ministerioak banatzeko aukak balira bezala. Guk bozkatzeko ditugunen artean. Gure ministerioak. Eta ez naiz identitatez ari, jabetzaz ari naiz, norik ordaintzen duen alegia, eta zertarako.

Eta kontua groteskoa bihurtzen da lapurreta kamara aurrean gertatzen denean, kazetariz inguratutik; Rodolfo Ares eta Fernandez Díez ziren, irribarretsu (barne politika da azken aldian, azken aldi luzean, gobernuen poz bakarra), ez dakit zer sinatuz mahaian eserita; barne arazotarako ministroak boligrafoari begiratzen dio, gustatzen zaio eta lasaitasun osoz, mikrofonoak bere hitzen lekuko zirela jakinik ere, eta bai, inporta du, horretara bainoa, esaten dio gure sailburuari boligrafoa opari eramango duela. Eta Rodolfok barre egiten du. Beharbada txantxa zen. Ez. Sinatu eta azpimarratu zuen, boligrafoa

airean erakutsiz, poltsikoratu egingo zuela, bestela seguru ahaztu egingo zitzaioela. Gure boligrafoa. Txikikeria bat da, eta horregatik da larria, horregatik da autoritarioa, horregatik da iraingarriagoa kasik, guk ordaintzen duguna, gure bizitza komuna artikulatzeko medioak, beraienak direla guk sinestarazi bagenie bezala, ez alderantziz. Eta Aresen barre kikilaren lekuan, Anguita irudikatu nuen, “ezin dizut eman, ez da nirea”, bat erantzunez, “eta kontuz informatiboetan ikusten ari dira nola lapurtzen diezun”. ■

«
Barne ministroak boligrafoari begiratzen
dio, gustatzen zaio eta lasaitasun osoz,
mikrofonoak bere hitzen lekuko zirela
jakinik ere, eta bai, inporta du,
horretara bainoa, esaten dio gure
sailburuari boligrafoa opari
eramango duela
 »

